

BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOA (BCulinary)

Sozietatearen izena

Basque Culinary Center Fundazioa

IFK

G20998100

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2009ko martxoaren 23ean eratu zen eskritura publiko bidez. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen, ["Basque Culinary Center Fundazioa" EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2009ko azaroaren 25eko Agindua betez.](#)

Ondoren Sukal Leku Fundazioa xurgatu zuen, horretarako baimena eman baitzion [2011ko azaroaren 3ko Agindua, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarenak, EAEko Fundazioen protektoratuak onartu egiten duelarik Basque Culinary Center Fundazioak xurga dezan Euskal Herria Sukal Leku Fundazioa, EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatuz eta xurgatutako fundazioaren erregistro-idazpenak ezeztatuz.](#)

Sail-atxikipena

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

EJSN

8543 Unibertsitate-hezkuntza.

Fundazioaren xedea eta helburua

Estatutuak aldatzea onartu zuen [2012 azaroaren 7ko Agindua, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuarenak, EAEko Fundazioen Erregistroan inskribatzen duena Basque Culinary Center Fundazioaren estatutu-aldaketa.](#) Fundazioaren helburua da prestakuntza eta ikerketa, berrikuntza, eta jakintza eta teknologia transferitzea Gastronomía Zientzien arloan -elkarlanean ikerketa-prozesuak sortuz Unibertsitate, Teknologia Zentro, enpresa eta erakunde publikoen artean, jakintza sortzeko eta transferitzeko gai den sare bat garatuz-, bai eta turismoa sustatzea eta bisitariak erakartzea ere gastronomiaren garapena bultzatuz.

Sailkapena kontabilitate nazionalan

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.


Fundazio-zuzkidura

242.662 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera


Fundazio-zuzkidura osatzen dute hura eratzean Mondragon Unibertsitateak eta erreferentziako 7 euskal sukaldarik jarritako 30.000 eurok, gehi 2011n xurgatutako Sukal Leku Fundazioaren 212.662 euroko fundazio-zuzkidurak, Eusko Jaurlaritzak, Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emana, Euskal Herriko Gastronomia Etxearekin batera.

Gastronomia-elkartea/erreferentziako euskal sukaldariak	% 65,67
Mondragon Unibertsitatea	% 12,07
EAEko Administrazio Orokorra	% 7,42
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 7,42
Donostiako Udala	% 7,42



Patronatuaren osaera

Izendatzen dituenak:	Patrono-kop./Guztira
Erreferentziako euskal sukaldariak	7/18
Erakunde pribatuak	6/18
EAEko Administrazio Orokorra	1/18
Azti Fundazioa	1/18
Mondragon Unibertsitatea	1/18
Gipuzkoako Foru Aldundia	1/18
Donostiako Udala	1/18



Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	23.455.902 €
Ondare garbia	17.189.676 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	1.142.461 €
Batez besteko langile-kopurua	18,02

Sozietatearen helbidea eta webgunea

Juan Avelino Barriola pasealekua 101, 20009 Donostia (Gipuzkoa).

www.bculinary.com